

“ ”

“Irakasleak armairutik ateratzea inportantea da, eskola espazio seguru bilakatzeko bidean”

Usua Martinez eta Kepa Blázquez

LGBT jendearen aurkako erasoen gorakada ohartarazi duten honetan, eskolan gaiak duen presentzia jakin nahi izan dugu. Ikastetxe barruko eraso homofoboek, horri aurre egiteko estrategiez eta hezitzaileek jokatu dezaketen rolaz mintzatu gara Kepa Blázquez eta Usua Martinez irakasle homosexualekin. Blázquezek Frantsesa eta Martinezek Hizkuntza eta Literatura ematen dute Bigarren Hezkuntzan, eta badakite LGBTfobiari aurre egiteko espazio inportantea dela eskola, baina kontuan hartuz “aldi berean eskola bera dela txikitatik barneratzen dugun heteronormaren transmisore handietako bat”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Zenbateraino da “marikoia” ohiko iraina eskoletan, ikasleen artean? Zer zigortu nahi du irain horrek?

Kepa Blázquez: Eskola hein batean ere bada gizartearen isla eta beraz galdetu beharko genuke zenbat esaten den “marikoia” kalean, tabernan, gaztetxean... baina egia da eskolan ere erabiltzen dela irain hori. Ez du sexu praktika zigortzen, kaxetatik ateratzea baizik, zehazki mutil-kaxatik ateratzea, mutil ereduaren kaxatik. Dena den, eraso homofoboa ematen delarik, beti azpimarratzen dugu norbaitek eraso jasan duela homosexuala delako, baina fokuak ez luke hori izan behar, baizik eta erasotzailea

homofoboa dela: erasoaren iturburua ez da biktimaren homosexualitatea, erasotzailearen homofobia baizik. Aldi berean, beste norbait marikoi gisa seinalatzen duenari balio dio bere gizontasuna bermatzeko, kaxatik atera den hori seinalatu bere burua kaxa barruan kokatzeko, arauaren barruan.

Usua Martinez: Nik ez dut ikusi irakasleak euren artean ari direnean “hura marikoia da” gisako solasaldirik; irain moduan aldiz, sarritan, adibidez mutilen batek bere gizontasunarekiko ahultasunen bat erakutsi badu. Espero ez nuen ere gertatu zait: klaseko lehenengo egunean 15 urteko gazteak euren burua

aurkezten ari zirela, neska batek baino gehiagok adierazi zuen lesbiana edo bisexuala zela. Eta ez da kasualitatea, batetik neskak izatea hori adierazi zuten guztiak, eta bestetik gainerako ikasleekiko oso ahaldunduta zeuden neskak izatea. Askoz zailagoa ikusten dut mutil batek halako aurkezpen bat egitea, gay zarela esateak suposatzen duelako zure maskulinitatearen boteretik eskailera-maila asko jaitea.

Blázquez: Nik uste, feminismoaren borrokarari esker bollera izateak ez dizula emakumetza kentzen besteen begiradaren aurrean. Aldiz, mutilok gure burua maritxu gisa aurkezten dugunean





“Erasoen iturburua ez da biktimaren homosexualitatea, erasotzailearen homofobia baizik”, azpimarratu du Kepa Blázquezek.

zalantzan jartzen da gure gizentasuna. Emakume izateko hainbat modu dagoen bezala, ez dut uste gizon izateko halako aniztasuna dagoenik.

Esku hartzen al dute irakasleek halako irainak entzutean?

Blázquez: Lehengora bueltatuko naiz, esku hartzen al du familiak, auzoak... halakoak gertatzen direnean? Badirudielako hezkuntzaren ardurua baino ez dela. Ikastetxeetan, normalean testuinguru ez-formaletan gertatzen dira halakoak, pasilloan-eta, ez ikasgela barruan, eta ez da hain erraza lanketa egitea. Biolentzia den heinean moztu egiten da, momentuan esku hartzen da, baina hortik harago epe luzeko estrategia botatzen dut faltan. Eta estrategia horrek denontzat izan beharko luke, sexu joera dena delakoa ere, ulertuta kaxen opresioa denok jasaten dugula, nahiz eta gu gehiago odolusten gaituen; “marikoa!” oihukatu duen horri planteatu behar zaio bere gizentasuna hersten ari dela. Homofobiaren kontrako mezu gehienek diskurtsoa da “utziezu nahi duten bezala maitatzen” eta gisakoak, baina diskurtsoa bideratu beharko litzateke norbere homofobia lantzerantz eta desaktibatzerantz, ulertuz norberarengan ere eragiten duela opresio horrek, gutxi gehiago.

Martinez: Momentuan esku hartzen duzu, bai, baina horrekin bakarrik ez goaz inora, diskurtsoa oso ikasia dugulako denok, baita irakasleek ere. Badakite marikoi deitzea ez dagoela ongi, eta segituan esango dizute txantxetan ari zirela

edo aitzakiaren bat jarriko dute. Alegia, kontua ez da ikusaraztea ekintza hori ez dagoela ongi, jakin badakitelako, eta hala ere behin eta berriz errepikatzen dute biolentzia hori... Kepak zioen bideetik, bestelako estrategiak behar ditugu, hasteko ikastetxeak espazio seguru eta eroso bilakatuz, sexu identitate guztiak babestuko dituen espazioa, gaur egun ez delako hala, inondik inora. Norbaiti marikoi deitzeaz ari gara, baina heterosexual ez denarenganako biolentzia alde guztietatik dator eskolan, curriculumetik hasi eta irakasleok egiten ditugun iruzkinetaraino.

Blázquez: Estrategia premiari tiraka, nik beti izan dut harrikada bat: euskalgintzaren borrokari esker Irale formazioa lortu den moduan (irakasleentzako ikastaroak, euskara eta euskal kultura indartzeko), antzeko formazioa planteatuko nuke, hezkidetza oinarri, gai hauen

“

Gakoa da ikasleei oxigeno bolak jaurtitzea, eredu hegemonikoarekiko kontrakorrantean doazenak”

Kepa Blázquez

kontzientzia hartzeko. Azken finean, ezer ez egitea da norma transmititzea eta egonkortzea, eta norma ez da naturala, propaganda eta zigor estrategiak ditu, eta ez dago horren kontzientzia nahikorik. Neska kuadrilla irtengo da luma duen mutilarekin batera patiora, eta hantxe joango zaio irakaslea “zeinen ongi akonpainatuta zauden” esatera mutikoari.

Zenbateraino iruditzen zaizue lagungarria irakasle ez heterosexualen euren identitate sexuala esplizitatzea? Armairutik ateratzen al dira irakasleak, ala bizitza pribatuaren esparrurako uzten dute gehienek?

Martinez: Ez dakit irakasleak armairutik atera ohi diren, baina niretzat bada inportantea egitea, “kaixo, hemen gaude, bollerak gara, marikak, transexualak, ez-binarioak, irakasleak gara eta lasai egon” mezua zabaltzea, eskola identitate sexual guztientzat espazio seguru bilakatze bide horretan. Heterosexuak arteen hedatuta dagoen diskurtsoa da “ze behar duzu hori esateko?”, bada, hain juxtu, zuk ez daukazu beharra. Dena etiketatzeko beharrik ez dagoela esaten digute, baina ez dira konturatzen ezer esaten ez baduzu zuzenean duzun etiketa “heterosexuala” dela. “Ez du inporta zer zaren eta norekin oheratzen zaren, denok berdina gara” ere badiote, eta ez da egia, heterosexual izateagatik besteok ez ditugun pribilegio batzuk dituztelako. Hori esanda, onartzen dut ikasleen aurrean “bollera naiz” esatea

kostatu egiten zaidala. Batzuetan esan dut eta bestetan ez, taldeak berak batzuetan gai horretaz hitz egitera eramaten zaituelako eta bestetan ez. Azken azaroaren 25ean adibidez, aztoratuta sartu ziren ikasleak, indarkeria matxistaz hitz egin nahi zuten, eta gizon zisheterosexualz gain dauden beste identitatez hitz egiten amaitu genuen.

Blázquez: Gure barne-borroka eta zailtasunak ditugu, eta ahal duguna egiten dugu. Batzuetan indartsuago zaude eta bestetan zaurgarriago, bolada batean kontraesanak izan ditzakezu... baina noski ikusgaitasuna oso inportantea dela, ez bakarrik ikasleentzat, baita neurretzat ere, neure prozesuarentzat. Erreferente garelarik erreferentzialtasun hori ez badut erabiltzen nire marikitismoa mahaiaren gainean jartzeko, norma gailenduko da eta etiketa jartzen ez badut beste etiketa aktibatuko da, Usuak dioen moduan. "Zertarako esan behar duzu?", bada, esan gabe heteronormak egiten duelako bidea. Hain juxtu, bikotea izan dudan garaietan erosoago esan izan dut gay naizela, normara zenbat eta gehiago hurbildu orduan eta errazago irekitzen zaizulako atea. Orain ostadarraren poltsarekin hasi naiz eskolara joaten.

Irakaslea armairutik ateratzeak laguntzen al die ikasleei bestelako ereduaren erakuntzan, aurreiritziak apurtzen?

Blázquez: Norma hegemonikora oso atxikita dagoen LGBT irakaslea bada, ez du zertan; horren aldean, lagungarriagoa litzateke adibidez gonarekin klasera etortzen den gizon irakasle heterosexuala. Edo luma duen gizon irakaslea, ez baita ohikoa luma erakustea autoritate posizioan dauden gizonengan, baina gogoia ere behar da luma azaleratzeko, gizon-kaxatik ateratzea delako, barreak eta biolentzia jasotzea dakarrelako, eta prest egon behar duzu horretarako, errazagoa da luma ezkutatuta eta kaxaratzea. Kontuak kontu, gakoia da ikasleei oxigeno bolak jaurtitzea, eredu hegemonikoarekiko kontrako-rrontean doazenak, dela ostadarraren poltsarekin agertuz, sintaxia emateko "ni eta nire mutila oporretara joan gara" esaldia erabiliz edo ikasleak Paris Saint Germain futbol taldeak irabazi duela eta hari buruzko lanketa egiteko eskatzen duenean nik ezetz erantzunez, Eurovisioko frantsesezko abestiak jorratuko ditugula.

Martinez: Kepak sintaxia aipatzen duen moduan, klasean erabili ohi diren eredu, adibide, curriculum eta abarrek hain dute ikuspegi zisheterosexuala, bestelako norabidean doan erreferentzia oro dela ongi etorria, seguru nagoelako asko eta asko direla ematen den materiarekin identifikatuta sentitzen ez diren ikasleak. Lehen urratsa da irakasleok kontziente izatea zer dagoen ematen dugun curriculum horren atzean, eta gero, dugun denboraren eta aukeren arabera jokatu dugu, irakasleengan ardura handiak jartzen direlako, baina muga handiak ere baditugu, hezkuntza sistemak berak ezarriak. Dugun beste lan bat da klaseko botere harremanak kudeatzea, espazio guztia jaten dutenei espazio pixka bat kentzea, espaziorik ez duten ikasleei hartuaraztea... Ez dira oreka errazak, ardura handia dugu, eta oxigeno bola horiek lagungarriak dira halako dinamikan.



Heterosexual ez denarenganako biolentzia alde guztietatik dator eskolan, curriculumetik hasi eta irakasleok egiten ditugun iruzkinetaraino"

Usua Martinez

Erreakzio txarrik jaso al duzue ikasleengandik, irakasleengandik, gurasoengandik? Zer esango zeniekete "gai horiek" ez direla ikasleekin hitz egitekoak pentsatzen dutenei?

Martinez: Ez dut inoiz jaso erreakzio txarrik...

Blázquez: Nik ere ez. Guraso batzuek pentsa dezaketela haurrei ez zaiela hitz egin behar identitate sexualaz? Agian ez dira konturatu heterosexualitatearen iturritik etengabe ari direla edaten haur horiek eta guk nolabait hori orekatu baino ez dugula egiten.

Hartu al zaituzte ikasleren batek "konfidente" moduan?

Blázquez: Udalekuetan gertatu izan zait, baten batek bere identitatea azaltzeko behar hori agertzea, baina horretarako begiraleok asko jarri genuen guretik, egun osoan elkarrekin ginen espazio hori espazio seguru eta eroso izan zedin; gauza handia da hori lortzea. Ikastetxean gertatuko balitzait eta ikasleak interbentzio beharra izango balu, orientazio departamentuarekin elkarlanean egingo nuke esku-hartzea.

Martinez: Armairutik ateratze prozesuan ikasle batek nigana joko balu, nik ez nuke orientazio sailera bideratuko, nigana jo badu delako nirekin nahi duela barnean duen hori partekatu eta ez nuelako eskolaren esku utziko pertsona horrekin egin beharreko esku-hartzea. Niri berez ez zait halakorik pasa, baina baditut lagun irakasle bollerak halako konfidentziak jaso dituztenak ikasleengandik, beraiekin armairutik atera diren ikasleak.

LGBT irakaslearen begiradak errazago harrapatzen al du identitate gaietan galduta egon daitekeen ikasle hori, laguntza eta aholkua behar duena?

Blázquez: Zure biografiarekin bat egiten duen ikaslearekin konexio handiagoa duzu, hori hala da. Nire haurtzaroa nire barnean dago eta pieza horiek ukitzen baditu, *ttak*, zerbait aktibatzen da. Baina ikasle talde bakoitzarekin ordu askorik ez baduzu astean, eta curriculum eman behar baduzu, gauza handirik ere ezin duzu egin, lehen esandako oxigeno bola ahalik eta gehien jaurti eta behar dituenak har ditzala, ikasle bakoitzak bere armairuarekin duen prozesua errespetatuz, jakina. Halakoak irakasle bakoitzaren prestutasunera mugatzea ez da zilegi, LGTBfobia arazo estrukturala izanik.

Martinez: Kasu bakoitzak zirkunstantzia ezberdinak ditu. Inportantea da inplizituki ikasleei transmititzea laguntza behar badute hor zaudela. Finean, eskolan ordu asko pasatzen dituzte haur eta gazteek, harreman asko dituzte bertan, eta beraz ikastetxea espazio inportantea da LGTBfobiari aurre egiteko, baina aintzat hartu behar dugu aldi berean eskola bera dela txikitatik barneratzen dugun heteronormaren transmisore handietako bat. ●